



11-12 Ikasturtea

AZAROA

“Ikastetxetik Zuengana” bukatu genuen bezala,¹ elcolegioinforma@marias-gasteiz.org helbidean eskaera egiten duten familiei posta elektronikoa bidez bidaliko zaie (eman seme-alabaren kurtsoa); ² ikastetxeko webgunean zintzilikatuko da; ³ atezaintzan ale batzuk utziko dira eta ondorioz ez da etxetara bidaliko. (Agenda 21)

M	1	
X	2	◆ 2.BATX.: 1go ebaluazioko azterketak ◆ 6.maila: Barne Kirolaren hasiera ◆ LHko 3.C eta D gelak: Abastoseko merkatura bisita
J	3	◆ 1go eta 2.BATX.: 1go ebaluazioko azterketak ◆ LH 3. maila: Antzerkia, Beñat Etxeparen
V	4	◆ 1go BATX.: 1go ebaluazioko azterketak ◆ Elkarbidea DBH 1: Gaubela eskolan ◆ HH: 15:15ean hitzaldia Arantza Beltrán de Heredia, eskolako psikologarekin eta HHko 1go mailarekin.
S	5	
D	6	◆ 12.30 Defuntuen meza
L	7	◆ 1go BATX.: 1go ebaluazioko azterketak / 2.BATX.: Ariketa espiritualak ◆ Santiago bidearen bigarren etapa egiteko izen emateko apearen bukaera
M	8	◆ 1go BATX.: 1go ebaluazioko azterketak / 2.BATX.: Ariketa espiritualak ◆ DBH 4: Kontzertua Jesús Guridi kontserbatorioan ◆ DBH 2: osasun azterketa ◆ 5.maila: Barne Kirolaren hasiera
X	9	◆ 2. BATX.: Ariketa espiritualak eta ebaluazio bilera ◆ 5.A: Zadorrara irteera ◆ DBH 2: osasun azterketa
J	10	◆ 2. BATX.: Ariketa espiritualak ◆ 5.B: Zadorrara irteera ◆ DBH 2: osasun azterketa
V	11	◆ DBH 2: osasun azterketa ◆ Elkarbidea DBH 3: Gaubela eskolan
S	12	
D	13	◆ 8.30 Santiago bidearen bigarren etapa: Beasain-Zegama ◆ 12.30 Eukaristia
L	14	◆ 5.C: Zadorrara irteera ◆ LH 6.A Kontzertua Hegoalden
M	15	◆ 5.D: Zadorrara irteera ◆ LH 6. B,C,D :Kontzertua Hegoalden
X	16	◆ 1go BATX.: Ebaluazio bilera
J	17	
V	18	
S	19	◆ 19etan: Marianisten Fraternitateen sagarapenak
D	20	◆ 12.30 Familien eukaristia
L	21	◆ DBH 1: Txertoak ◆ LH 5. eta 6. : Antzerkia Beñat Etxeparen
M	22	◆ LH 5.A eta 6.A : Antzerkia Beñat Etxeparen
X	23	◆ LH 4., 5. eta 6. : Antzerkia Ingelese
J	24	◆ 1go BATX.: Fisikako irteera
V	25	◆ 20 etan Sendotzak Elkarbidean
S	26	
D	27	◆ 12.30 Eukaristia
L	28	
M	29	◆ 1go BATX.: Ariketa espiritualak
X	30	◆ 1go BATX.: Ariketa espiritualak

HH: Haur Hezkuntza LH: Lehen hezkuntza DBH: Derrigorrezko bigarren hezkuntza Batxilergoa



Heztea ezagutzak transmititzea baino gehiago da, informatzea baino gehiago da.

UNESCOK dio hezkuntza orok lau zutabetan oinarritu behar duela: errealitatea **ezagutzen** ikastea, **pentsatzen** eta jokatzeko ikastea, **izaten** ikastea eta **elkarrekin bizitzen** ikastea.

(Gogo oinarria)



❶ ZERURANTZ/ azaroak 6

Gure aitaren etxera joan diren senide guztiak gogoratzeko datak iritsi dira. Eskolan urte honetan zehar joan diren guztiak gogoratu nahi ditugu. Beraien izenak ematea gustatuko litzaziguke, azaroak 6an egingo dugun eukaristian gogoratzeko, guretzako oso garrantzitsuak baitira eta denek izan baitute gure eskolarekin harreman zuzena. Beraz, behean agertzen den izenetan baten bat falta bada eta gogoratu nahi baldin baduzue, deitu Araceliri.

Itziar Otaduy
José Zubizarreta
Jorge Jorge
Alejandro Rodríguez SM
M^a. Luisa Mtez. Ruiz Escudero
Jesús Izar de la Fuente
Jorge Calle
Javier Zurita Goñi

Vicente Aguirre Albisua
M^a. Teresa Mtez. de Marigorta
Jorge Fontaneda Ruiz
Francisco Novillo
Juan Carlos Ibarrondo
Javier Postigo
Consuelo Monasterio
Juan Olañeta

Patxi Otaegui
Bittor Larrañaga
Alejandrina Hernández
Salvador Abolafio
David Valdivielso
M^a Paz San Miguel
Felix Alaña
María Gutiérrez
Lidia Valgañón



❷ MARIANISTASETAKO HIZKUNTZ PROIEKTUA

Kurtso hasierako guraso bileretan aurreratu genuen bezala, eskolako web orrialdean zintzilikatu dugu azken urteetan diseinatu dugun [eskolako hizkuntz proiektua](#). Era laburbildu batean aurkezten dira bertan, helburu, metodologia, zein hizkuntza erabiliko den arlo bakoitza emateko maila ezberdinetan eta epe laburrerako egokitzapenak.



❸ PLAN ESTRATEGIKOA

Hobekuntza planetan murgilduta gaude- Q 2008-eta hilabete honetan zehar gure eskolako hobekuntza plana aurkeztuko dizuegu Webaren bidez, helburuak eta arrakastarako faktore kritikoak. Horrela, denok izango duzue datorren urteetarako eskolak jarraituko duen jokoaren berri.



❹ IRADOKIZUN ETA KOMUNIKAZIOA

Eskola ireki eta hurbila izan nahi dugu, eta zuetariko bakoitza entzun nahi dugu. Honetarako kexa eta iradokizun postontzia daukagula Idazkaritzan, baita helbide bat web orrian ere (sugerencias@marias-gasteiz.org), kurtsoaren bukaeran egiten den inkesta, irakasleekin izaten duzuen elkarrizketa pertsonalak edo klase bezala tutorearekin, eta zerbait inportanteago denean, Zuzendaria beti da prest pertsonalki bakoitzari entzutera gogorarazi nahi dizuegu. Erabil itzazu bide hauek gure komunikazioa hobetzeko.



❺ ERANTZUN “SOLIDARIO BATNA”ESKOLAKO ERROPAN

Gure erosketak Txinan egin genitzake merkeagoak izateko, baina duela bi urte “erantzun solidario” bat ematea erabaki genuen: Ordutik aurrera, gure txandal, kamisetak...Limako(Peru) auzo marginal batean eginak dira- bidezko merkataritza- eta honi esker hainbat familiak bizitza duinago bat eraman dezakete. Erropa hau erostean, amets solidario bat eramaten dugu aurrera. Informazio gehiago nahi izanez gero, “[Respuestas solidarias](#)” (3. znb.) aldizkaria ikus dezakezue.



❻ ESKERRIK ASKO ARACELI!

Azaroak 10ean, hirira irekitako leihoa, eguneroko irribarrea eta arreta ezinhobea eman digun Araceli aurrejubilatzen da, ondo merezita. Jadanik ez da egunero eta ordu guztietan idazkaritzan egongo. Eskerririk asko Araceli, hainbesteko eskuzabaltasunagatik, hainbesteko arduragatik- batez ere ahulenengatik- hainbeste emozio eta hainbeste proiektu elkarbanatzeagatik. Jarraitzen duzun arren, ez da izango modu berean. Eskerririk asko beraz, komunitate hau osatzen dugun guztion partez, eskerririk asko 37 urte hauengatik!



❼ BESTE BATZUK

- Katedraleko parkinerako eskaintza ([klikatu](#))
- Santiago bideko 1go etapako (Tolosa-Beasain) argazkiak berehala Webean.
- Urtekaria: Urtekaria jaso nahi ez duzuen familiak jakinarazi idazkaritzan, mesedez.
- [PSOren hauteskunde aurreko bideoari](#) buruzko [Kristau Eskolaren KE komunikatua](#).